


EAEko gazteen erdiak baino gehiago leku publiko itxi guztietan erretzea debekatzearen alde daude

Euskal Autonomia Erkidegoan 18 eta 29 urte bitarteko gazteen %92k uste dute erretzen ez duten pertsonen eskubideak errespetatu behar direla toki publikoetan.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2010eko abuztuan argitaratutako datuen arabera, EAEko gazteen %57 ados daude Eusko Jaurlaritza tabakoari buruz bideratzen ari den legeria berriak planteatzen duenarekin, hau da, leku publiko itxietan erretzea zeharo debekatzearekin. Hala ere, 18 eta 29 urte bitarteko gazteei dagokien portzentaje hori giza talde nagusiagoetan azaldutakoa baino txikiagoa da: debekuaren alde agertu dira 30 eta 45 urte bitartekoen %60, 46 eta 64 urte bitartekoen %62 eta 64 urte edo gehiago dutenen %67.



Zehazkiago, EAEko gazteen %82 lantokietan erretzea debekatzearen alde daude, %69 jatetxeetan debekatzearen alde, %58 pilotalekuetan eta apur bat gutxiago (hala ere, gehiengoak) taberna, kefetegi, pub eta diskotekei dagokienean (%54).

Horrelako jarrerak azaltzen badituzte ere, planteatzen denean erretzea eskubidea dela eta ez dagoela zertan mugatu, gazteak antzeko pisuko bi taldetan banatu dira: 18 eta 29 urte bitartekoen %49 ados daude baieztapen horrekin eta %47, aldiz, kontra daude.

Iturria: “[Drogodependentzien Euskal Legea: tabakoaren kontsumoa](#)” (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2010).

Documento seguro incrustado

El archivo http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/r48-14452/eu/contenidos/informe_estudio/o_10tef12_tabaco/eu_10tef12/adjuntos/10tef12_tabaco_eu.pdf es un documento seguro que se ha incrustado en este documento. Haga doble clic en el pin para visualizar.

